




BIZITZA NORMALA ERAMAN DEZAKET TXERTOIA JARRI ONDOREN?

Txertoek denbora bat behar dute eman ondoren organismoak birusaren aurrean babesera dezan.

Bestalde, harik eta biztanleria-kopuru handi batek txertoia jarrita izan arte, oso garrantzitsua da pertsona guztiek, txertoia jarrita izan ala ez izan, prebentzio-neurriak betetzen jarraitzea.

- Maskarak erabiltzea
- Eskuen ohiko higieena.
- Pertsonen arteko distantzia.
- Burbuila: harremanetarako pertsona-kopurua mugatzea.
- Espazio itxiak aireztatzea.
- Eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak agertzen bazaizkigu, isolatu egin behar dugu eta osasun-zentroarekin harremanetan jarri.



Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa



NON JARRIKO DIDATE TXERTOIA? HITZORDUA EMANGO DIDATE ALA ESKATU EGIN BEHAR DUT?



• Erabilgarri dauden txertoen arabera, Osakidetza izango da xede-biztanleriari jakinaraziko diona nola, noiz eta non dagokion txertoa jartzea. Itxaron Osakidetza zurekin harremanetan jarri arte, eta ez deitu osasun-zentrora zure txertaketa-txandaren inguruan galdetzeko.



• Zure txanda heldu bada, Osakidetzak SMSa bidaliko dizu, web-orriaren eta mugikorreko aplikazioaren bidez hitzordua eskatu ahal izateko.



• Aldi berean, telefonoz deituko zaie harremanetarako telefono gisa mugikorrik ez dutenei, edo agendan hutsuneak bete behar badira.



• SMSa jaso baduzu eta hitzordua hartzeko zailtasunak badituzu, osasun-zentroarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz eta txertaketaren 1. aukera markatu. Inolaz ere ez joan osasun-zentrora bertara.



• Web bidezko hitzordua zabalik egongo da, txertoak eskuragarri dauden neurrian. Horiek amaitzen direnean, aplikazioan sartzean mezu bat agertuko da, agortu direla jakinarazteko. Une horretan, itxaron egin behar da. Osakidetzak testu-mezu berri bat bidaliko du mugikorrera dosi gehiago jaso eta txertaketari berriz ekiten dionean.



Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa

**COVID-19AREN AURKAKO TXERKAKETA KANPAINA
GALDERA OHIKOENAK**



ORAIN TXERTOIA HARTZEN ARI DEN KOLEKTIBOKOA NAIZ, ETA OSAKIDETZAK ORAINDIK EZ DIT DEITU. DEI DEZAKET HITZORDUA HARTZEKO?

- Osakidetza txertatzen ari den xede-kolektibo horietakoren batekoa bazara, ITXA-
RON Osakidetza zurekin harremanetan jarri arte, eta ez deitu osasun-zentrora
edo EAGra zure txertaketa-txandaren inguruan galdetzeko. Komunikazio-lineek erabil-
garri egon behar dute osasunarekin zerikusia duten beste behar batzuei arreta emateko.

OSAKIDETZAK ESAN DU AMAITU DUELA NIRI DAGOKIDAN KOLEKTIBOAREKIN ETA EZ DIDATE DEITU ETA EZ DIDATE HITZORDURIK EMAN. ZER EGIN BEHAR DUT?

- Osakidetza zurekin hitzordua eskaintzeko harremanetan jarri ez bada eta zure
taldearekin amaitu badu, orduan bai, jarri dagokizun osasun-zentroarekin harre-
manetan.


Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa





TXERTO A JAR DEZAKET *SINTROM*-A EDO AHOKO BESTE ANTIKOAGULATZAI- LERIK HARTZEN ARI BANAIZ?

- Antikoagulatzailerekin (hala nola Sintrom eta bestelakoak) tratamendu kronikoan daudenean, INR (nazioarteko indize normalizatua) adierazlea kontrolatuta eta egonkor badute, muskulu barneko txertoa arazorik gabe jar dezakete.



Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa



NOIZ KOMENI DA TXERTAKETA ATZERATZEA?

- Gaur egun, ez da gomendatzen txertaketa orokorra honako kasu hauetan:
 - > COVID-19agatiko gaixoeekin kontaktuan egoteagatik isolamenduan daudenak.
 - > COVIDagatiko infekzioa aktibo dutenak edo azken 6 hiletan izan dutenak.
 - > 18 urtetik beherakoak.
 - > Haurdun dauden emakumeak.
 - > Beste txerto mota batekiko erreakzio anafilaktiko larriak dituztenak.
 - > COVID 19aren kasu egiaztatu batekin kontaktuan egoteagatik isolamenduan daudenak.
 - > Profesional batek aurreko kasuren batean txertoa jartzeko aholka lezake, onurak arriskuak baino gehiago balira.

Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa



HAURDUN NAGO. TXERTOAK JAR DEZAKET?

- Nahiz eta haurdunen txertaketan segurtasun-arazoek indikaziorik ez dagoen, ez dago ebidentzia nahikoa haurdunaldian txertoaren erabilera gomendatzeko. Oro har, **haurdunen txertaketa atzeratu egin behar da, haurdunaldia amaitu arte.** Haurdun dagoenak esposizioan egoteko arrisku handia badu edo konplikazioetarako arrisku handia, txertoa ematea balora daiteke, banaka.
- Txertoa jartzeko orduan emakume batek haurdun egon daitekeela uste badu, txertaketa atzera daiteke.




Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa



COVIDA IZAN DUT, TXERTOIA JAR DEZAKET?

- Deskribatutako emaitzak aintzat hartuta, infekzio asintomatikoaren edo sintomati-koaren aurrekaria duten pertsonetan, larritasun-maila gorabehera, honako hau gomendatzen da:
 - > **65 urtetik gorakoa bazara: txertaketa, 2 dosirekin.**
 - > **65 urte edo gutxiago badituzu: dosi bakarreko txertoa hartzea, infekzioa jasan edo infekzioaren diagnostikoa jaso eta sei hilera.**




Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa



TXERTOIA JARRITA DUT ETA KONTAKTU ESTUA NAIZ. KONFINATUTA EGON BEHAR DUT?

- COVID-19aren txertoak ez duenez gaixotasunaren aurrean % 100ean babesten eta txertoa jarrita duen pertsona batek birus kausala transmititzen jarrai dezakeenez, kontaktu estutzat jotzen denak neurri berak bete beharko ditu eta haren erkidegoan biztanleriarentzat oro har ebatzitako proba berak egin beharko ditu.



Informazio gehiago: www.euskadi.eus/koronabirusa